

# KATEKESIA GAZTEENTZAT - FEDEAREN MISIOLARI


“Fedearen misiolari” da DOMUND egunerako aukeratu duten goiburua; fedea iragartzea Jesus, bere bizia eta hitza “kutsatzea” da. Ikasleak goitik behera aldatu ziren Jesus berpiztuarekin bat egin zutenean. Geldiarazten zituen beldurra alde batera utzi eta itxaropenaren eramaile bihurtu ziren besteentzat.

## MISIOA: BIZIKIDETASUNA ETA ELKARBANATZEA

Lehenengo kristauen fedean sakonduko dugu eta gaurko munduari Jesusen eta bere Berri Onaren begiez begiratuko diogu. Iturrietara, Ebanjelioetara joko dugu. Jesusen lehenengo ikasleen fedea nolakoa den ulertzen lagunduko diguten ebanjelioetako testu batzuk aukeratu ditugu.

Gogora dezagun fedea lekukotasunarekin, ahoz aho, transmititzen (kutsatzen) dela... “*Hasieratik zen biziaren hitza, entzun eta geure begiz ikusi duguna, begiratu eta geure eskuz ukitu duguna, iragartzen dizuegu. [...] Ikusi eta entzun duguna dizuegu zuei ere iragartzen*”, idazten du Joanek bere lehen gutunean (1 Jn 1, 1. 3a).

## IKUSI – GIZAKIAREN EGOERA MUNDUAN



10,9 milioi eskasek kontrolatzen ditu 42,7 bilioi dolar, hau da, munduko BPGaren bi heren. Zer ordain liteke dirutza horrekin?

Bilatu interneten: **www. Estado del Poder Corporativo 2012**

Irudia proiektatu eta azaldu.

Irudiaren arabera:

- Zein jarrera nagusitzen da mundu honetan?
- Zein dira munduko biztanlerian aberatsena den %0,001aren asmoa?
- Zer eragiten dute beren jarduera ekonomikoek?

Infografia aztertu ondoren, Ebanjelioko pasartea irakurri.

## **EPAITU – JESUSEN BIZIMODUA: BIZIKIDETASUNA ETA ELKARBANATZEA**

*Ebanjelioa: Mt 5, 1-12 - Zoriontasunak.*

Sakondu - Elkarrizketa

- Zein jarrerak egiten gaitu zoriontsuago: Jainkoarengan eta besteengan konfiantza izateak, bizitza xumeak, apaltasunak, egiazaletasunak, zintzotasunak, leialtasunak, errukiak, asmo garbiak,...; ala horien kontrakoeak: mesfidantzak, harrokeriak, gezurrak, bidegabekeriak,...? Taldean, solasean jardun.
- Besteei fedea iragartzeko, edozein jarrera edo ekintzak balio du? Zer izan daiteke lagungarri, beste batzuek Jesusengan sinets dezaten?

*Ebanjelioa: Mk 8, 1-9 – Ogiak eta arrainak.*

Sakondu - Elkarrizketa

- Ematen duena, jasotzen duena baino zoriontsuagoa dela esan zuen Jesusek. Mundu hain bidegabe eta desberdin honen aurrean, zein jarrera pertsonal eta sozial garatu behar du kristauen elkarteak?
- Zein “bizimodu” edo “ongizate maila” onartu beharko luke kristauak?
- Jesusengan sinesten dutenek, zer elkarbanatu behar dute besteekin, beren fedea sinesgarri izan dadin?
- Aipatu eta azaldu aukera bat baino gehiago.

Misiolariek Jesusen bizimodua daramate. Hona hemen lekukotasun batzuk, aukeratzeko: “Misioneros por el Mundo: Japón-Tokyo y Osaka (I eta II zatiak) 13TVko ‘a la Carta’ saioan, [http://www.13tv.es/13tv\\_online.php](http://www.13tv.es/13tv_online.php).

## **EKIN - KONPROMISOA**

Demagun misiolaria zarela eta kontu bat duzula Tuentin edo Facebooken; azaldu eta hausnartutakoa kontuan hartuta, zein perfil sortuko zenuke zuretzat?

*“Berri Ona hots egiteko mandatua ez da agortzen [...]. Lekuko Elizaren jarduera guztiak, bere sektore guztiak eta, azken batean, bere izate eta lan guztiak Berri Ona hots egitera zuzenduta egon behar dau [...]. Eliza den mosaiko handia osatzen duten guztiak Jaunaren mandatuaren interpelazio gogorra sentitu behar dute: denoi dagokigu Berri Ona hots egitea, Kristo leku guztietan iragarria izan dadin [...]. Paulo apostoluen arrastoan atzetik joan behar dugu [...], indarririk, denborarik eta baliabiderik gorde gabe Kristoren mezua ezagutzera emateko...” “Ebanjelioaren iragarpena esku-hartze bihurtzen da: Ebanjelioari laguntzeko, zuzentasuna egiteko pobreen alde, miseria gainditzeko,... herrien garapenaren alde egiteko,...” (Benedikto XVI.a, 2012ko DOMUND egunerako mezua).*

Elkarrizketa:

- Zertarako behar dugu Jesusek bizitzaz duen ikuspuntua?
- Nola ematen duzu ezagutzera Kristo zure bizigiroetan? Nola hobetu jarduera hori?
- Kristorengan sinesten duenak, zein bidetatik ibili behar du mundu honetan?
- Zure ustez, nola iragarri behar die bere fede esperientzia beste batzuei?
- Ondorioak Domund eguneko Eukaristiara eramango ditugu.